



VII. eranskina

Onartutako dokumentu elektronikoen formatuak

Estandarren dokumentua

2008

Berrikuspena	Data
1	2008ko uztaila
2	2009ko otsaila
3	2010eko urtarrila
4	2010eko otsaila

Aurkibidea


1	Erabilera-esparruak	3
2	Formatu estandarren emaitzak	5

1 Erabilera-esparruak

Administrazio-prozeduretan bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoen erabilera arautzen duen abenduaren 18ko 232/2007 Dekretuak (aurrerantzean, BEIT Dekretua) ondoren aipatzen diren erabil-esparruak arautuko ditu.

Esparruak	Betebeharreko arauak	Laburtuta
Irakurtzeko formatuak	43. artikulua, 1. puntua	Irakurtzea
Aurkezpeneko formatuak	43. artikulua, 2. puntua	Aurkeztea
Biltegitzeko formatuak	43. artikulua, 2. puntua	Biltegitzea
Paperezko jatorrizko dokumentuen kopia elektronikoen formatuak	43. artikulua, 4. puntua	Paperetik elektronikora
Internet bidez zabaltzeko formatuak	Ez dago baldintzarik EIT bitartekoei buruzko Dekretuan. Administrazioaren ekoizpenaren arauak biltzen dituen dokumentazioa eta inprimatutako berezko formularioak dira. Irigarritasunari buruzko baldintza bat dago Web edukientzat.	Internet

Hurrengo diagramak aurkezten ditu, alde batetik, dokumentu-elektronikoei dagozkien kudeaketa sistemak (Sarrera/Irteera erregistroa, Espedienteen Kudeaketa Sistema eta Artxibo Kudeaketa Sistema), artxiboak (Fisikoa eta Digitala), web-guneak (euskadi.net, gaiekiko atariak) eta Herritarrak.



Dokumentu-elektronikoen fluxuak honako hauek dira esparru bakoitzean:

Esparrua	Dokumentu-elektronikoen fluxua
Irakurketa	Administrazioak herritarrei bidalitako dokumentu elektronikoak dira. Azken dokumentuak dira; inork ezin ditu aldatu, esaterako, administrazio-ebazpena.
Aurkezpena	Herritarrek Administrazioari bidalitako dokumentu elektronikoak dira.
Biltegiatzea	Biltegi digitalean gordetako dokumentu-elektronikoak dira.
Paperetik Elektronikora	Paperezko dokumentuetatik eratorritako dokumentu-elektronikoak dira, herritarrei bidaltzeko.
Internet	Herritarrek, euskadi.net gunearen bidez, eskuragarri izaten dituzten dokumentu-elektronikoak dira. Adibidez, araudiak, inprimatzeko inprimakiak,...

Baliabide korporatiboak optimizatzeko asmoz (edukiera, telekomunikaziorako banda-zabala, serbitzariak, lanpostuak...) **Artxibo Digitalera doazen dokumentu-elektronikoen gehieneko tamaina 30 Mb-etakoa izango da.**

2 Formatu estandarren emaitzak

Aurkezpena esparrurako dokumentuak PDF formatuan bidaltzea gomendatzen da, edo PDF/An (epe luzerako iraupena) bada askoz hobeto.

Esparrua	Formatua	Izena	Azalpena
Irakurketa	PDF/A	Portable Document Format for Archiving	Epe luzera kontserbatzeko dokumentu-elektronikoen artxiboen formatua
	ejgvDocument		Erabilpena: erabili beharreko informazioa izanez gero, eta PLATEA eremuan bakarrik Dokumentu horrek etorkizunean garatuko den “ <i>Esquema Nacional de Interoperabilidad</i> ” (ENI) izeneko arauak ezarritakoa jarraituko du.
Aurkezpena ^{1 2}	ejgvDocument		Gaur egun, jakina denez, dokumentu-elektronikoen formatuen kopurua oso handia da, alde batetik, eta, bestetik, erakundeek, oro har, eta herri-administrazioek, bereziki, muga teknikoak dituzte guztiak jasotzeko. Hori dela eta, ezinezkoa da existitzen diren formatu guztiak onartzea. ejgvDocument izeneko formatua PLATEA eremuan erabiliko da.
	Testu fitxategia (ANSI*, Unicode, UTF-8)	Testu sinplea, ASCII	
	GIF (1987a, 1989a*)	Graphics Interchange Format	
	HTML / XHTML (HTML 4.1*, XHTML 1.1*)	Hyper Text Markup Language	
	JPG/JPEG 2000*	Joint Photographic Expert Group	
	DOC, XLS, PPT (MS Office 6.0/95-bertsiotik 2003*-bertsioraino)	Microsoft Office	
	DOCX, XLSX, PPTX (Office Open XML)	Microsoft	
	ODT, ODS, ODP (ODF 1.0*)	Open Document Format	
	PDF 1.0 edo maila handiagokoak (PDF/1.4*)	Portable Document Format	
	PDF/A*	Portable Document Format for Archiving	
	PNG 1.0 edo maila handiagokoak (1.2*)	Portable Network Graphics	
	RTF 1.4 edo maila handiagokoak (1.8*)	Rich Text Format	
TIFF 4.0 edo maila handiagokoak (6.0*)	Tagged Image File Format		

¹ Kontratazio Publiko Elektronikoen eremuko eskaintzen aurkezpen-digitala Ondoren aipatzen diren formatuak soilik onartuko dira: **Microsoft Office (DOC, XLS, PPT), PDF, RTF, SXW, ABW, JPG, BMP, TIFF, ZIP eta 7Z**. Ikus “*Eskaintzak era digitalean aurkezteko jardunbideak*” izeneko dokumentua (eskuragarri dago www.euskadi.net/kontratazioa helbidean).

² **Elektronikoki sinatutako fitxeroak**
Aurkezpen esparruan *PKCS7 detached* izeneko sinadura formatua onartzen da.

***Formatua zutabean, “Aurkezpena” esparruan, gomendatutako bertsioa/k adierazten du/ditu.**

Esparrua	Formatua	Izena	Azalpena
Biltegitratzea	PDF/A	Portable Document Format for Archiving	Gomendagarria da jasotako dokumentu elektronikoak jatorrizko formatu berean gordetzea, herritarrek bidalitakoak zein administrazioan bertan sortutakoak izan. PDF/A formatua erabiltzea gomendatzen da, gordetako dokumentu-elektronikoen kasuetan, epe luzerako kontserbazioa gauzatzeko.
Paperetik Elektronikora	PDF/A	Portable Document Format for Archiving	Epe luzerako kontserbaziorako formatua, alegia, PDF/A , erabiliko da jatorrizko paperezko dokumentuen kopia elektronikoak egiteko.
Internet	PDF/A	Portable Document Format for Archiving	Herritarrek irakur ditzaten argitaratutako dokumentuak: Bakarrik edukiak dokumentu elektronikoko formatuan argitaratzea hobe denean HTML formatuan argitaratzea baino.
	PDF betegarria ³	Portable Document Format	Herritarrek, web-gunetik hartu eta gero, bete beharreko dokumentuak dira (adibidez: inprimatutako inprimakiak).
	RTF	Rich Text Format	
	ODF	Open Document Format	

³ Interneten dagoen PDF formatu betegarriari buruzko oharrak

- A. Prozedura «on-line» erabilgarri baldin badago eta herritarrak erantsitako dokumentazioa eman nahi badu:
- “Adobe Acrobat” produktua badauka, bai “Standard” bai “Professional” bertsioetan, dokumentua ofimatikoki bete, bere ordenagailuan gorde, sinadura elektronikoa erabili (estandar PKCS#7 detached –sinadura elektronikoa banandua-, inoiz ez Adobe-ren sinadura propioa) eta, erantsitako dokumentazio bezala, emateko aukera izango du izapide baten hasieran edo ondorengo prozesuetan, biak «euskadi.net» ataritik eginak.
 - “Adobe Reader” (edo antzeko) produktua besterik ez badauka, gauza bera egiteko aukera izango du PDF formaturako inprimagailua birtuala badauka, esate baterako “PDF Creator” software librea. Kasu honetan, betetako dokumentua gordetzeko, PDF formatuan inprimatu beharko du eta inprimaketa horren emaitza bere ordenagailuan gorde.
- B. Herritarrak izapidea aurrez aurre egin nahi badu, bi aukera ditu:
- Dokumentua bere ekipoa bete eta paperean inprimatu
 - Dokumentua inprimatu eta eskuz bete
- Bi kasu horietan, eskuz sinatu beharko du eta, gero, behar den tokian eman.